

# Klima aldatzen ari da, eta gu?

Gizakiak eragindako klima aldaketa, espezie gisara aurre egiteko dugun arazorik larrienetako bat da. Epe motzera milioika lagunek jasango dituzte goseteak, ur eskasia, gaixotasunak edota itsasertzeko uholdeak bere eraginez. Badirudi itzulerarik gabeko puntua uste baino gertuago dugula, eta hainbat zientzialarik diote jada gainditu dugula. Zer egin dezakegu horren aurrean?

## Orain arte zer?

Klima larrialdiaren ondorioak arintzea posible litzateke, baldin eta negutegi efektua eragiten duten gasen isurpena murriztea lortzen badugu.

Horretarako irtenbide posible bat baino gehiago proposatu izan dira: norbanako jokabideari dagozkionak (gehiago birziklatzea, ibilgailuen erabilerak murriztea...), merkatuaren gaineko neurriak (karbonoaren gaineko zerga, teknologia garbien erabilera sustatzea...) eta baita hain polemikoak diran geo-ingeniaritza soluzioak ere. Azken hauek, ingurugiroa eskala handian eraldatzea dute helburu, eta ekintzen artean daude: basoberritze intentsiboa, estratosferara sulfatoa isurtzea aerosol bitartez (planetak argiak islatzeko duen gaitasuna modifikatzeko) eta ozeanoak burdinez fertilizatzea, atmosferatik karbonoa ezabatzen lagunduko duten algen sorrera bultzatzeko, besteak beste.

Baina, eraginkorrak al dira neurri hauek? Hasteko eta behin, klima aldaketa leuntzeko guztiok gure aldetik zerbait jarri beharko dugun arren, norbanakoen ekintzak ez omen dira nahikoa izango arazoari aurre egiteko eta gainera, hauek eskala handian ematea ez dago ziurtatuta. Bestalde, enpresa eta erakundeei eragiten dieten neurriak, oraingoz behintzat, ez dirudi beteko direnik. Eta azkenik, geo-ingeniaritzak arrisku handiak dakartza, planeta erabat aldatuko luketen neurriak baitira eta beraz, ondorioak oso gaitzak dira aurreikusten (adibidez, itsasoan burdina sartzeak plankton toxikoa garatzea ekar dezake).

Horren aurrean, badirudi gu geu ere saihestezinak diren efektuetara moldatu beharko garela, **hautespén naturala azele-ratuko duten neurriak abian jarri.**

## Eta hemendik aurrera?

Giza ingeniaritza, gizakion moldaketa biomedikoan datza eta bi helburu nagusi ditu: klima aldaketa arintzea eta gu geu bere efektuetara egokitzea. Honen barruan, hainbat neurri proposatzen dira, besteak beste 3 hauek:

**1. Haragiarekiko intolerantzia farmakologikoa:** negutegi efektua eragiten duten gasen portzentaje altu bat abeltzaintza intentsibotik datorrela gauza jakina da, sortzen duten metanoarengatik eta baita abeltzaintzarako erabiltzen diren lur-eremuen deforestazioa dela eta. Horregatik, klima aldaketa murrizteko neurrietako bat haragi gorri gutxiago jatea litzateke. Zentzu honetan giza ingeniaritzak haragi gorriarekiko intolerantzia indutitzea proposatzen du.

**2. Gizaki txikiagoak egitea:** gure karbono aztarna hein handi batean gure tamainarekin lotuta dago; hots, zenbat eta tamaina txikiagoa izan, orduan eta gutxiago kontsumitzen dugu, zentzu guztietan (janaria, garraioa, etab.). Eta nola lortuko genuke gure tamaina murriztea? Aukeretako bat da, ernalkuntza kliniketan tamaina txikiagoa izango duten enbrioak aukeratzea eta besteak baztertzea.

**3. Altruismoa eta enpatia farmakologikoki indutitzea:** ingurumen arazo ugariaren erroa, akzio kolektiboaren gabezia datza. Baina pertsonok elkarlanean aritzeko prestutasun handiagoa izango bagenu, eta gainontzekoek ere badutela uste izango bagenu, norbanakoek partaidetzan lan egiten dutenean sortzen diren onurak ikusiko genituzke. Horregatik, farmakoekin enpatia eta altruismoa indutitzeak ildo honetan emaitzak lortzen lagunduko luke. Nola? Hormonak erabilita: badirudi oxitozinak eta beste hainbat substantziak kooperazioa eta engaiamendu soziala handitzen dutela.

Dena den, ongizateak justifikatzen al du gizakiaren eraldaketa artifiziala? Beharrezkoa da, ala kontrara, marra hori zeharkatzea ekidin beharko genuke?

